

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **Hasierako onespina ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari**

Udalbatzak, 2020ko urriaren 7an egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2020ko urriaren 8a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*